



## Relais & Chateaux San Román de Escalante hotela

Kantauriko itsasertzak aukera asko eskaintzen dizkio herri zoragarrietan zehar egun batzuetarako atsedean eta lasaitasunaren bila ari denari. Badira xarma handiko hotelak, urrutira joan gabe Gabon bereziak igarotzeko aukera ematen dutenak

**Escalante** da leku berezi horietako bat. Kantabriako okealdeko itsasertzean dago herri txiki, Trasmiera eskualdean. Eta herri horietan dago, hain zuzen ere, Relais & Chateaux Hotel San Román de Escalante hotela. Eraikin ikaragarria, azken urteetan Espainiako iparraldeko kostura jotzen duen turismo berriaren erreferentzia bilhurtu dena. Santandemik Bilborako erribidean dago XVII. mendeko amantidun jauregia txiki, Santoriaiko jatorritako Emeserria Nazionalaren atzean ezkutaturik. Hotelaren kokapen pribi-

legiatuak hainbat jardueretarako aukera ematen du, hala noia mendi ibilaldiak, txirridu edo quad ibilaldiak, golf zelaiak eta itsas ibilaldiak Laredo eta Santoña bitartean.

### Ingurunea

Hotela bere baso pribatua dauka, bere bezeroen gozamenarako. Baso horretan, udaldian, gune berezia eratzten dugu hotelaren jarduera nagusia antolatzeko: estresaren kontrako masajeak; horietan alpagarri gertatzen da banbuarekin emandako Bambú Scultor izenekoa. Re-

lais & Châteaux Hotel San Román de Escalantek 16 gela zabal eskaintzen ditu, gutxi, beraz, edo beste era batera esanda, oso aproposa bertako kudeatzailer Rubén eta Cristinak zerbitzu zaindu eta pertsonalizatua emateko. Bere baso bereziaz gain, hotela baditu, halaber, loretozia, igerilekua eta jatetxea.

Orain Relais & Châteaux San Román de Escalante dena duela gutxi Casa Jado izan zen, XVII. mendeko jaurretzea. Egiturari dagokionez, badu atal nagusi bat, zenbait tellatu hegal han-

diak, eskortak eta Santelices familiaren armarría duen atelada. Etxeak beste hiru armarrí dauka: bi Trevillarenak eta bat Velarde eta Jado-rena.

### Jatetxea

Jado Etxeko zalditegi zaharra hoteleko jatetxe bihurtu zuten, Erwin Hartl sukaldeburu alemanaren eskutik. Sukaldari ospetsu hori urte batzuez aritu zen lanean eta gaur egun nabarmena da sukaldearen egitura izan zuen eragina. Jatetxeak, azpimarratu behar da, garrantzi berezia ematen dio eguneko



lehengalekin lan egiteari. Izatez, Relais & Châteaux Hotel San Román de Escalante hotelak bere ortu propioa dauka, bere sukaldean lantzeko barazkiak ematen dituena. San Román de Escalante hoteleko sukaldeak beste leku eta herrialde batzuetako usain eta zapozet betetzen duten hogelita hamar inguru espezie erabiltzen dira etxeko sukaldaritzan.

**Gabon Zaharreko festa**  
Kantabriako luxurik handieneko bazterra apaindu eta etiketaz janzten da urte zaharri agur egiteko. Relais & Châteaux Hotel San Román de Escalante hotelak aukera bikaina eskaintzen die janari ona maite dutenei eta Gabon Zaharreko festa ingurune apartean ospatu nahi dutenei. Hiru pakete eskaintzen ditugu aukeran, bi, hiru edo lau gau lo-gela bikoltzetan egin nahi dutenentzat. Pre-

zioak era askotakoak: hasi 640 eurotik, gela estandarrean bi gau egin nahi dutenentzat, eta 1.160 eurora, suitean lau gau egin nahi dutenentzat. Pakete bakoitzean sartzen da lo egitea, gosaria

bi laguntzentzat eta galazko afaria Gabon Zaharrean, ongi etorraren aperitiboa, musikaz apaindutako giroa, kotiloia eta doako barra.

**Erreserbak**  
**942 67 77 28**

[info@sanromandeescalante.com](mailto:info@sanromandeescalante.com)  
[www.sanromandeescalante.com](http://www.sanromandeescalante.com)

